

Bidaiarien sarrerak %-15 jaitsi ziren 2009ko otsailean

Gaualdiak %-19 gutxitu ziren 2008ko otsailaren aldean

2009ko otsailean, 117.488 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 21.000 sarrera gutxiago, hau da, %-15eko jaitsiera, Eustatek eskainitako datuen arabera. Bidaiari-sarrerak %-21 jaitsi ziren Araban, %-18 Gipuzkoan eta %-12 Bizkaian.

Estatutik etorritako bidaiarien sarrerek %-13ko jaitsiera izan dute eta atzeritik etorritakoenek %-23koa. Estatutik datozen bidaiarien kopurua hiru herrialdeetan jaitsi da : Araban %-21, Gipuzkoan %-17 eta Bizkaian %-6. Atzerriko bidaiarien kopurua hiru herrialdeetan jaitsi da, baita ere: Bizkaian %-25, Araban %-22 eta Gipuzkoan %-19.

Estatutik etorritako bidaiarien artean gehitu egin ziren Galizia, Asturias eta Extremaduratik etorritakoak. Ehuneko handiago batez jaitsi dira Katalunia, Madril, Kantabria eta Valentziatik etorritakoak. Atzeritarren kasuan, bidaiari gehiago etorri da Danimarka, Finlandia, Grezia, Irlanda eta Japoniatik; aitzitik, Frantzia, Italia, Portugal, Erresuma Batua eta Alemaniatik etorritakoen kopurua gutxitu egin da, besteak beste.

Gaualdiak, 2009ko otsailean, 201.664 izan ziren, aurreko urtekoan baino %-19 gutxiago, hots, 48.000 gaualdi pasa gutxiago. Gaualdiek urte batetik bestera bilakaera negatiboa izan dute hiru lurraldeetan: Gipuzkoan %-23 jaitsi ziren, Araban %-22 eta Bizkaian %-16.

Euskal AE osotara hartuta, bidaiarien batez besteko egonaldia aurreko urteko otsaileko 1,80 egunetik aurtengo 1,72ra pasa da. Murrizketa hiru herrialdeetan izan da: Gipuzkoan %-6, Bizkaian %-4 eta Araban %-2.

Plazen okupazio mailak %-21eko beherapena izan du; aurreko urteko otsailean %38,83koa zen eta aurtengo otsailean %30,78koa. Jaitsiera honek hiru lurraldeei eragin die: Araban %-29, Gipuzkoan %-21 eta Bizkaian %-18.

Nekazalturismoa: Gutxitu egin dira bidaiarien sarrerak (%-6) eta gualdiak (%-5).

Joan den otsailean 6.313 bidaiari izan dira Euskal AEko nekazalturismoetan, hots, aurreko urteko hilabete berean baino %-6 gutxiago; bidaiari kopurua %13 gehitu da Gipuzkoan baina %-26 gutxitu da Bizkaian eta Araban. Estatutik etorritako bisitariak %-2 gutxitu ziren Euskal AEn: Araban %-23 jaitsi ziren, %-19 Bizkaian; igo egin ziren, %15, Gipuzkoan. Atzerritarrek %-40 murriztu zuten euren presentzia Euskal AE osoan, hiru herrialdeetan jaitsiz: Araban eta Bizkaian nabarmen jaitsi ziren ehunekoetan eta Gipuzkoan (%-7) apalkiago.

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan egindako gualdiak 14.379 izan dira otsailean, lehengo urteko hil berean baino %-5 gutxiago. Urte arteko hazkunde-tasa positiboak izan dira Gipuzkoan (%17), baina negatiboak Araban (%-22) eta Bizkaian (%-31).

Bidaiarien batez besteko egonaldiaren iraupena handitu egin da Euskal AEn, 2008ko otsailaren aldean; hain zuzen, duela urtebete 2,26 egunekoa izan zen eta aurtengoan 2,28koa. Bilakaera positibo hau Gipuzkoan (%3) eta Araban (%5) izan da; Bizkaian jaitsi egin da (%-7).

Plazen betetze-maila %-12 jaitsi da, %16,58tik %14,66ra, Bizkaian (%-37) eta Araban (%-29) izandakoen ondorioz; Gipuzkoan %11 hazi da, %19,33raino.

1. taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	02 2009	%	02 2008	%	Δ %	02 2009	%	02 2008	%	Δ %	02 2009	%	02 2008	%	Δ %	02 2009	%	02 2008	%	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	201.664	100	249.910	100	-19	28.198	100	36.324	100	-22	102.210	100	121.210	100	-16	71.256	100	92.376	100	-23
Estatukoak	147.556	73	178.300	71	-17	23.130	82	28.664	79	-19	72.252	71	82.038	68	-12	52.174	73	67.598	73	-23
Atzerrikoak	54.108	27	71.610	29	-24	5.068	18	7.660	21	-34	29.958	29	39.172	32	-24	19.082	27	24.778	27	-23
Hiriburua	129.176	64	147.194	59	-12	22.964	81	27.268	75	-16	69.855	68	74.140	61	-6	36.357	51	45.786	50	-21
Litoral	15.897	8	24.750	10	-36	-	-	-	-	-	7.045	7	9.040	7	-22	8.852	12	15.710	17	-44
Barnealdea	56.591	28	77.966	31	-27	5.234	19	9.056	25	-42	25.310	25	38.030	31	-33	26.047	37	30.880	33	-16
BIDAIA-RIEN SARRERAK	117.488	100	138.647	100	-15	16.341	100	20.670	100	-21	60.006	100	67.985	100	-12	41.141	100	49.992	100	-18
Estatukoak	90.185	77	103.384	75	-13	13.624	83	17.207	83	-21	45.300	75	48.447	71	-6	31.261	76	37.730	75	-17
Atzerrikoak	27.303	23	35.263	25	-23	2.717	17	3.463	17	-22	14.706	25	19.538	29	-25	9.880	24	12.262	25	-19
Hiriburua	76.360	65	83.756	60	-9	13.153	80	14.867	72	-12	40.643	68	41.920	62	-3	22.564	55	26.969	54	-16
Litoral	9.950	8	12.767	9	-22	-	-	-	-	-	3.946	7	4.764	7	-17	6.004	15	8.003	16	-25
Barnealdea	31.178	27	42.124	30	-26	3.188	20	5.803	28	-45	15.417	26	21.301	31	-28	12.573	31	15.020	30	-16
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,72		1,80		-4	1,73		1,76		-2	1,70		1,78		-4	1,73		1,85		-6
BETETZE-MAILA PLAZAKA	30,78		38,83		-21	27,03		38,03		-29	32,38		39,34		-18	30,29		38,50		-21
Hiriburua	34,94		41,53		-16	32,60		42,18		-23	37,53		41,79		-10	32,14		40,74		-21
Litoral	24,70		34,65		-29	-		-		-	23,71		30,38		-22	25,54		37,70		-32
Barnealdea	25,59		35,82		-29	15,45		29,32		-47	25,37		37,68		-33	29,77		35,96		-17
BETETZE-MAILA GELAKA	41,40		49,67		-17	36,52		47,77		-24	44,96		51,52		-13	38,42		47,94		-20
Hiriburua	48,00		53,07		-10	44,48		54,26		-18	52,67		54,45		-3	41,92		50,00		-16
Litoral	32,07		42,32		-24	-		-		-	32,23		39,46		-18	31,93		44,31		-28
Barnealdea	32,89		46,03		-29	19,05		30,52		-38	34,09		49,38		-31	36,45		46,86		-22
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	14.379	100	15.147	100	-5	2.724	100	3.505	100	-22	2.786	100	4.040	100	-31	8.869	100	7.602	100	17
Estatukoak	12.528	87	12.478	82	0	2.632	97	3.057	87	-14	2.463	88	3.115	77	-21	7.433	84	6.306	83	18
Atzerrikoak	1.851	13	2.669	18	-31	92	3	448	13	-79	323	12	925	23	-65	1.436	16	1.296	17	11
BIDAIA-RIEN SARRERAK	6.313	100	6.691	100	-6	1.184	100	1.596	100	-26	1.230	100	1.653	100	-26	3.899	100	3.442	100	13
Estatukoak	5.947	94	6.083	91	-2	1.156	98	1.505	94	-23	1.143	93	1.405	85	-19	3.648	94	3.173	92	15
Atzerrikoak	366	6	608	9	-40	28	2	91	6	-69	87	7	248	15	-65	251	6	269	8	-7
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,28		2,26		1	2,30		2,20		5	2,27		2,44		-7	2,27		2,21		3
BETETZE-MAILA PLAZAKA	14,66		16,58		-12	14,06		19,72		-29	8,49		13,58		-37	19,33		17,34		11
BETETZE-MAILA GELAKA	17,83		19,08		-7	16,50		21,27		-22	11,13		16,97		-34	23,34		19,66		19

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

 Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

 Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp